

Helduen euskalduntzea, Bilbotik ikusita

Xabier Monasterio Jna.

Gabriel Aresti euskaltegia

Helduak euskalduntzeko gizarte-mugimenduaren historia, 1960an hasi eta gaur egunera arte, bilakaeraren faseak eta aldiak.

La euskaldunización de adultos en Bilbao

Historia del movimiento social de euskaldunización de adultos desde 1960 hasta la actualidad, en sus diversas etapas y fases de evolución.

The teaching of Euskara to adults in Bilbao

History of the social movement for teaching Euskara to adults from 1960 to the present, its different stages and phases of evolution.

Adiskide horiek, arratsalde on.

Ez da, ez, langintza erraza Eusko Ikaskuntzak eta Bidebarrieta Kulturguneak antolatutako VI. Sinposio honen barruan helduen euskalduntzeak Bilbon azken berrogei urte hauetan izan duen bilakaera jorratzea. Izan ere, gaiak helduleku ugari ditu eta, horietatik abiatuta, makina bat komentario, zehaztapen eta datu atera litezke, baina denboraren estuak –ordu laurden omen dugu gure azalpena egiteko– helduleku bakarra hautatzera behartzen gaitu. Beraz, ildo bat aukeratu behar eta Bilbon euskalduntze mugimenduak berrogei urteko kronologia batean ezagutu di-tuen faseak gaingiroki zehazteari iritzi diogu egokien, irizpide horrek euskalduntze mugimenduak gure hirian aspalditik daukan garrantziari behar bezala erreparatzen lagunduko digulakoan.

1960-1970: ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE MUGIMENDUAREN SORRE-RA

50eko hamarkadaren amaiera aldean, hasierako ikastolak sortu ziren garai berberean, zenbait euskaltzale herritar euskaldunak alfabetatu eta herritar erdaldunak euskalduntzeko zegoen beharraz ohartzen hasi ziren eta lehenbiziko teorizazio saioak idatzi zituzten alfabetatze-euskalduntzei buruz. Aurreneko urratsak Elbira Zipitriak eman zituen 1964an, eta haren ondotik laster heldu ziren Mikel Lasa, Iñaki Beobide eta, batez ere, Rikardo Arregi zenaren lan opa-roak. Esate baterako, 1966an Rikardo Arregik alfabetatze kanpainei ekiteko proposamena aurkeztu zuen Eus-kaltzaindiaren batzar batean eta txosten haren harian Akademiak Alfabetatze Ba-tzordea antolatu zuen bere baitan. Garai berean, eta hau ere Rikardo Arregi zenaren ekimenez, Goierri aldean lehenengo euskalduntze eskolak ematen hasi ziren.

1970-75: GAU ESKOLEN GARAIA

Rikardo Arregik urraturiko bideak indarra hartu zuen eta laster zabalduz joan zen Euskal Herriko beste leku askotara. Ahalegin guzti haien ondorioz, Gau Eskolak sortu ziren, beren buruak alfabetatu edo euskaldundu nahi zituzten herritar guztiei nola edo hala erantzun ahal izateko. Gainera, esan beharra dago, herrietan ere sortu baziren ere, zabalkunderik handiena hirietan izan zutela gau eskolek. Ez da harri-tzeko datua, Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa ordurako hirietan pilatzen zela eta biztanle haietariko asko eta asko erdaldunak zirela kontuan harturik.

Bilbora etorrira, esaterako, garai honetantsu gau eskolak perretxikoak bezala ugaltu ziren, auzune bakoitzeko bat izateraino ia-ia. Eta Bilbok inguruetan zuen oihartzunaren eraginez, berehala hedatu ziren aldameneko herrietara ere, Basauri-tik hasi eta Santurtziraino. Izan ere, ordurako, diktaduraren mehatxu eta zigorrak gorabehera, geroago eta gehiago ziren, lanetik edo ikastetxetik irten-

dakoan, euskararen hasi-masiak ikasteko zuten egarria asetzera gau eskolaren batera jotzen zuten herritarrak.

Hasi-masiak aipatu ditugu eta ondo esan dugulakoan gaude, zeren eta orduko gau eskola hasi berrietan irakasle hasi berriek horixe baino ezin baitzuten egin. Gau eskolak nonahi eta nolanahi antolatzen ziren eta eskolak nornahik ematen zituen. Dena zegoen egiteke eta egiteko.

Azpiegiturari dagokionez, ez dezagun ahaztu, artean ezkutuko jarduera zenez, gehienetan sakristia, lonja eta horrelako tokietan kokatuta egoten zirela eta ba-liabideak gutiz urriak zirela, batzuetan arbelik ere ez baitzen izaten.

Irakaslegoari dagokionez, bestalde, irakasle guztiak boluntarioak ziren, euskara bultzatzearen eta musu truk ibiltzen zirenak. Sasoi hartan aski zen norbait euskalduna zela jakitea beste errequisito barik hango edo hemengo gau eskolan irakasle lanetan hasteko. Gernika, Arratia, Durango eta Lea-Artibai aldeko makina bat euskaldun ezagutu ditugu Bilbon, hizkuntza idatzia menderatu ez arren, maitasun eta kemen handiz herritarrak euskalduntzeari ekin ziotenak. Izan ere, ezin da ahaztu euskara batuaren lehenbiziko arauak eman berriak zirela (1968an) eta artean inor gutxik ezagutzen zituela. Beraz, irakasle jator kementsu haiek, ezinbestean, euskara irakastearen poderioz alfabetatu behar izan zituzten beren buruak.

Ezin gau eskolen garaia aipamena amaitu *Euskalduntzen* metodoari omenaldi xume bat egin gabe. Gutariko askok gogoan ditugu oraindik Imanol Berriatua apaiz ezin jator eta euskaltzaleago zena arbel baten aurrean agertzen zeneko liburu urdin, berde eta marroixka haiek. Metodo berri hura Bilbon Euskaltzaindiaren inguruan zebiltzan hainbat euskaltzalek sortu eta bultzatu zuten. Egileen artean izen ezagun asko ageri zaizkigu: Rikardo Badiola, Sabin Egileor, Jose Ramon Etxebarria, Xabier Kintana, Juan Jose Zearreta, Imanol Berriatua bera eta beste asko. Saila 1972. urtean argitaratzen hasi zen eta, plazara agertu bezain azkar, berebiziko arrakasta eskuratu zuen ikasle eta irakasle guztien artean.

1975-82: EUSKALTEGIEN GARAIA

Aurreko urteetan baliabide gutxi baina indar eta ilusio ezin handiagorekin ereindako haziak bere fruitua eman zuen eta, 70eko hamarkadaren erdialdera helduta, lehenengo euskaltegiak sortu ziren Bilbon. Oroimenak huts larririk eragiten ez baldin badigu, urte hauen bueltan Bilbo Zaharra, Ulibarri eta Gabriel Aresti euskaltegiak jaio ziren, hurrenez hurren. Esan gabe doa AEK erakundeak bultzaturikoak ere hauspo betean zebiltzala lanean ordurako. Eta, bestalde, Bilboko elizbarrutiaren babespean, Labayru Ikastegia sortu zen 1977an, besteak beste, bizkaieraren lanketa eta zabalkundeari bultzada berezia emateko asmoz, gaur arte inork ez bezala bete duen lan ederra, hain zuzen ere.

Gau eskolen segidakoak izanagatik ere, aitortu beharra dugu Israelgo *ulpan* direlakoek –judu bertaratuei hebreera irakasteko akademiek alegia– zerikusi eta eragin handia izan zutela Bilboko zenbait euskaltegiren sorrera eta antolaketan. Go-gora ekar ditzagun honetaz Imanol Berriatuak, Xabier Kintanak eta beste zenbait euskaltzalek Israelgo *ulpan*etara eginiko bisitaldiak eta bertan harturiko irakastaldiak, geroago Ulibarri euskaltegian aplikatuko zirenak.

Euskaltegiek berrikuntza ugari ekarri zituzten eta haietariko nabarmenena, agian, ordutegiaren luzapena izan zen. Jadanik ez ziren ordu pare eskas batez euskara pittin bat ikasteko aukera ematen zuten behin-behineko zentruak, herritarrei goizetik gauera bitarteko zerbitzua eskaintzen zieten ikastegi antolatuak baino.

Gainera, politikaren aire berriez baliatuz, orduko euskaltegiek, gau eskolek ez bezala, nolabaiteko enpresa eraketa eskuratu zuten. Salbuespenak salbuespen, ge-hienek kooperatiba bidetik jo zuten, euskalduntze-alfabetatze mugimendua guztion artean eta herritarren onerako eta zerbitzurako egin beharreko lana zelako uste o-soan.

Eraketa berriaren bultzadaz, irakasleen zelanbaiteko –hastapenetako– profesionaltze bidea urratzen hasi zen. Bestela esanda, euskalduntzea lanbide bilakatuz joan zen poliki-poliki, eta irakasleak bolondres hutsak izatetik soldatapeko langileak –nahiz eta soldata kaxkarrekoak– izatera pasatu ziren. Azken batean, lanpostuetan gutxienezko egonkortasuna lortu zen estreina-koz.

Bestalde, urteak aurrera joan ahala, euskara batua geroago eta finkatuago zegoen, eta horrek aukera bikaina ematen zuen testu eta metodo berriak sortzeko. Orduantxe sortu ziren, 1978an hain juxtu ere, *Jalgi Hadi* eta *Hitz egin* metodoak. Lehenak enbataren adinako oldartzea eta iraultza sortarazi zituen irakasleen artean, ohiko liburuaz gain, audioa, hormirudiak eta irakaslearentzako gidaliburua ere ba-zekartzalako. Sekulan ikusi bako kontuak, alajaina! Bigarrenaz, esan behar Euskal-tzaindiak sortu berria zuen Oinarrizko Euskararako Batzordeak prestatu zuela, Ima-nol Berriatua Bilboko bulegoan buru zela eta ingelesezko Alexander metodoa ardatz harturik. Anekdota legez, aipa dezagun Iberdrola enpresak Lemoizen egindako triskantzagatik bere burua zuritze alde-dera euskararen faboretan eman zituen diruei es-ker argitaratu zela metodoa.

Giro itxaropentsu hartan murgildurik, alfabetatze-euskalduntze mugimendu-ak goia jo zuen urte haietan. 1976an, konparazio baterako, Euskal Herrian barrena 40.000 lagun ari ziren euskara ikasten, inoizko ikasle kopururik handiena. Jakina, Bilbo ez zen ostenduta geratu eta bilbotarrek erruz eta aldraka jo zuten euskaltegietara, euskal hizkuntza eta kulturaren sustraiak bertatik bertara ezagutzeko biziz.

1982-90: HABEREN GARAIA

Garai hau aztertzen hasi aurretik, hobe genuke, ene ustean, orduko egoera

eta gorabehera sozio-politikoak oroitaraztea. Autonomia estatutua onetsirik, Eusko Kon-tseilu Nagusia zelakoak lekukoa emana zion ordurako Eusko Jaur-laritzari Auto-nomia Erkidegoan, eta erakunde berria gizartearen esparru guz-tiak arautzen hasita zegoen. Esparruak arautzearen fruituetako bat Eusko Jaur-laritzak 1982an atera zuen Euskara Arautzeko Legea dugu.

Autonomia estatutuan xedatzen denaren arabera, herritar guztiak dute eus-kara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. Horrenbestez, gobernuari eskubide hori bermatzea zegokion eta, horren kariatara, 80ko hamarkadaren hasieran HABE izene-ko antolamendua jarri zuen abian, hau da, Halduen Alfabetatze eta Berreuskaldun-tzerako Erakundea.

HABEren aurreneko lana ordurarte halamoduz eta bakoitzaren iritzira fun-tzionatzen zuen euskalduntze mugimendua ofizialtasun batera eta molde eta arau jakin batzuetara ekartzea izan zen. Euskararen irakaskuntza maila zehatz batzuetan finkatu zituen eta glotodidaktika arloko irizpideak ezarri zituen (lau trebetasunak). Gainera, teoriarik aldarrikatzen zuena praktikarekin uztartu nahian, bere euskaltegi pilotoak sortu zituen hiru herrialdeetan, horretarako oposizio bidez hainbat irakasle kontratatu zituela. Hortaz, HABErenak izan ziren euskalduntze arloko lehen irakasle funtzionarioak. Bilboko euskaltegi pilotoa Carlton hotelaren atzealdean zegoen.

Bestalde, EGA agiria ipini zuen indarrean, geroztik hamaikatxo ikasleren guruzbide eta hondamendi bihurtu den zoritxarreko titulua. Haren helburua, nahiz eta oso gaizki planteatuta egon, zera zen: garai hartan administrazioetan sortzen ari ziren lanpostuetan jardun ahal izateko, euskararen nolabaiteko gai-tasun maila bermatzea. Denborak erakutsi duenez, EGA tituluak horretarako ere ez du balio.

HABEren planteamendu arauemaileen aurrean, Bilboko euskaltegi gehie-nek –AEKrenak alde batera utzita– haren eskakizunetara makurtzea beste erre-mediorik ez zuten izan, dirulaguntzak jaso ahal izateko. Kontuan hartu behar da ordurako Bilboko euskaltegiak Euskal Herriko handienak zirela, ikasle kopu-ruari zegokionez, eta baita garestienak ere, pertsonal eta azpiegitura gastuei zegokienez. Beraz, Bilboko euskaltegiak homologatuak izatera pasatu ziren. Eta homologazioarekin batera, neurri batean bederen, euskalduntzearen hasierako urteetan agertu zuten inizatiba ere galdu zuten. Egia esan, gizartea bera ere bes-telakatzen ari zen, eta balio instrumentala euskararen balio sinbolikoa ordez-katzen hasita zegoen.

Hamarkada honen amaiera aldean HABEK bere euskaltegi pilotoak desegin zituen eta, tokian tokiko administrazioen laguntzaz, bide eman zien udal eus-kaltegiei.

1990-2000: LOZORROAREN GARAIA

Aurreko hamarkadan nabaritzen hasitako aje batzuk areagotu egiten dira ha-

markada berrian. Lehengo urteetako ikasle uholdea baretu eta orekatu egiten da, ba-teko, Bilboko biztanleria helduaren zati handi bat jadanik inoiz euskara ikasten saiatu denez gero eta, besteko, administrazioan bete beharreko lanpostu gehienak jadanik beteta daudenez gero.

Eusko Jaurlaritzak funtzionario erdaldunak euskalduntzeari ekiten dio eta hizkuntz eskakizunen politika jartzen du indarrean. Horren ondorioz, beste ikasle mota bat heltzen da euskaltegiara, euskara, bestelako motibazioen gaitetik, lanerako tresna huts bezala hartzen duena.

Bestalde, HABE, helduen euskalduntzea dinamizatu beharko lukeen erakundea, inpasso moduko batean sartzen da, ez aurrera eta ez atzera, aurrekontu mugatuak dituela argudiatuz, eta gehiago arduratzen da kontrol, ikuskaritza eta burokra-tizazio lanak egiteaz, euskalduntzea bera bultzatzeaz baino.

Bilboko euskaltegiak, oro har, geldotasun horretaz kutsatzen dira eta bakoi-tzak bere bidetik jarduten du ahal bezala, gogoeta sakonik eta planteamendu berririk egin gabe.

Ordurako asko dira euskara nagusitan ikasitako bilbotarrak, baina, era berean, askoz gehiago dira bidean porrot egindakoak ere, eta horren eraginez, euskara ikastearen zailtasunaren –zenbaiten ustez, ezintasunaren– sindromea zabaltzen hasten da pixkanaka-pixkanaka.

Hitz gutxitan esanda, autokritika egiteko garaia iritsia da euskalduntzera, baina, ene ustean, inor gutxik egiten du. Eta autokritikak aipatzen hasita, zerrenda luze samarra egin genezakeela uste dugu. Hona hemen, labur-labur, nabarietak:

– Ez dugu jakin Bilboko biztanle helduek luzaroan euskara ikasteko agertu diguten nahi eta atxikimenduei behar besteko garrantzirik ematen. Gogora dezagun, esate baterako, azken hogeitaz urte hauetan Bilbon 25-45 urte bitarteko 120.000ko biztanle multzo batean 75.000 bilbotar saiatu direla inoiz euskara ikasten. Datu izugarri handia da, oso oker ez bagaude, munduan parekorik ez duena.

– Euskalduntzearen historia luze-labur honetan, eragile gehienok zeharo tematuta egon gara hizkuntzaren ezagutza finkatu eta ziurtatzearekin. Hau da, muturraren muturreraino asperrarazi eta gogaitarazi egin ditugu ikasle dohaka-beak euskararen morfologia, deklinabide, aditz paradigma eta enparauekin. Horrek, jakina, latinizazio konplexua sortarazi du euskara ikasle askorengan, alegia, euskara ikastea = gramatika piloa jakitea.

– Irakaskuntza modu guztiz tradizionala erabili dugu gehienetan: ikasgela, irakaslea eta ikasleak; hau da, artzaina eta bere artaldea, mendiz mendi larrean ibili ordez –edo nahiago bada, kalez kale hitz egiten ibili ordez–, beren barrutian ondo gordeta egon direnak.

– Ezagutzaren bideari lehentasun osoa eman zaionez, erabilera bigarren

maila batean geratu da. Egia da azken urteotan euskarak presentzia handiagoa hartu duela Bilboko kaleetan, baina egia ere bada presentzia hori ez dela, ezta hurrik eman ere, guk denok nahi genukeen bezain handia eta eraginkorra. Honetan denok gara errudun, Bilboko Udaletik hasi eta bertoko azken euskaldunarenganaino.

– Azken aspaldion, euskaltegiak beren baitara bilduegiak egon dira, kanpogan gizarteak unean-unean hartu izan dituen norabideez gehiegi arduratu gabe eta, are okerrago dena, gizarte horretan euskarak irabaz zitzakeen esparruak landu gabe.

2001: PLANTEAMENDU BERRIEN GARAIA

Ajeak ezaguturik, bestek alboko langintza batean egin duenari jarraikiz, sendabelarrak bilatu egin beharko ditugu, denon artean euskarak gure hirian daukan osasuna sendotu eta bizkortzeko. Ez zaigu, ez, bide txarra iruditzen sendabelarren konparazioa, Bilbok, euskarari dagokionez, goitik beherako zirujia erasokorrak bai-no, askoz beharrezkoago dituelako bere gorputz konplexuan astiro baina sendo txer-tatuz joango diren sendabide naturalak.

Gu ez gara soziolinguistikaren petrikiloak, baina badakigu, ondo jakin ere, hizkuntza bat sendabidean jartzeko haren erabilera eta harekiko motibazioa lantzea bezalakorik ez dagoela. Hortixek jo behar dugu.

Ordezkatzen dudan Gabriel Aresti euskaltegiak ildo honetan martxan jarritako esperientzia bat kontatzea zilegi bazait, adierazi nahi dizuet duela bost urte, Gabriel Aresti euskaltegitik abiatuturik, Zenbat Gara kultur elkartearen sortu genuela, geure apalean, euskararen erabilera eta erreferentzia guneak zabaltzen hasteko. Harrezkero, lan dezente egin dugulakoan gaude. Hor daude, kasurako, Kafe Antzokia eta bertan urtean zehar antolatzen ditugun orotariko kultur emanaldi ugariak; hor dago euskara hutsean emititzen duen Bilbo Hiria irratia; hor ditugu Zenbat Gara eta Ga-rena aldizkariak; orobat, Algara konpartsa, Ume-gunea eta ikasle diren eta ez direnentzat antolatzen ditugun jaiak, ekitaldiak, etab.

Horiek guztiak hondar aletxo bat besterik ez dira Bilboko itsaso handian, baina gu hasita gaude bide horretan sakontzen, eta Bidebarrietako liburutegi maite honetatik deia eta gonbidapena egiten dizuegu Bilboko euskaldun guztiok, elkarrekin euskararentzat bide eta gune berriak irabazten jarrai dezagun.

Eskerrik asko